

ataria

2021-07-16 • 1.455. zenbakia
107.6 fm • www.ataria.eus

Bittor Madina, dabilen harrian goroldiorik ez





10-17

AURKIBIDEA

Iritzia Ura Iturralde **3**

Elkarrizketa Edurne Barriola,
zaldia terapia gisa **4-7**

Errezeta Aintzane Artola **8**

Asteko Gaia Bittor Madinaren
euskal eskola publiko euskaduna
amets eta errealitate **10-17**

Bertsoa Unai Mendizabal, 'Mendi' **18**

Begirada Grafikoa Ibaikadak **19**

Iritzia Aritz Peñagarikano **20**

Iritzia Nekane Artolazabal **21**

Olerkia Ione Gorostazu **22**

Elkarrizketa Ana Arsuaga
Aranbarriren Verde Prato **26-29**



26-29



21



Azaleko irudia
Pedram Yazdani

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzen eta
lana euskaraz

3ikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





URA ITURRALDE
ARGAZKILARIA

Saman

Pandemiaren egoera ikusita, aurtan ere ezingo dut pentsatuta neukan bidaia burutu. Lehenbailehen bueltatu nahiko nuke Teheranera nire lagunak bisitatzera, ez nuke beraiekin nuen harreman polita galdu nahi. Oraingoz posible ez denez sare sozialak besterik ez zaizkit geratzen haien berri izateko. Ahal dudan guztietan hitz egiten dut beraiekin egoera nola daramaten jakiteko eta benetan pozten naiz ikustean ondo daudela, ez dutela aparteko berri-rik niri kontatzeko. Nik ezagutu bezala jarraitzen dute gehienek, Saman izan ezik.

25 urte zituen Samanek Teherango kaleetan ezagutu nuenean. Oinez gindoazela aipatu zidan bisexuala zela eta gogorregia egiten zitzaiola bizia bere jaioterrian. Aske izan nahi zuela, ez zuela buruan zapirik eraman nahi eta ez zituela gobernuak ezarritako neurriak gehiago jasan nahi. Arrazoi honengatik Thailandian igarotzen zituen gutxi gorabehera sei hilabeteko boladak, ondoren berriro gurasoen etxera bueltatzeko. Bere asmoa ordea beti izan zen Bangkok-en geratu eta bertan bizi berri bat hastea ingeleseko irakasle bezala. Iranen ia hilabete batera egin eta gero, etxetik jarraitu dut bere ibilbidea Facebook bitartez.

Benetan hunkitu nintzen beraz, orain dela bi aste, ezkondu egin zela jakin nuenean. Elkarrekin bizitako egun zoragarri guzti haiek etorri zitzaizkidan burura, zenbat oroitzapen, zenbat abentura...

Nire bidaia hain erraza egin zuen neska polit hari asko zor diot dudarik gabe. Orain dela urtebete Bangkok-en bertan ezagututako mutil batez maitemindu

eta ezkondu egin dela esan berri dit, oso zoriontsu dagoela ingeleseko irakasle bezala lan egiten institutu batean. Bere ametsa zena lortu du beraz, hasiera batean erraza ematen ez zuen arren.

Amankomunean ditugun lagun irandar gazteak ere badituzte ezinezkoak diruditen helburuak. Bata moda diseinatzailea izan nahi du Milanen, bestea diseinatzaile grafikoa atzerrian eta azkena bitxigilea.

25 urte zituen Samanek Teherango kaleetan ezagutu nuenean. Oinez gindoazela aipatu zidan bisexuala zela eta gogorregia egiten zitzaiola bizia bere jaioterrian.

Eta zergatik ez? Galdetzen diot neure buruari... Saiatzen ari dira behintzat, noizbait beraien aukera iritsiko denaren esperantzarekin. Okerragoa izango litzateke saiatuko ez balira, hori bai tristea. Instagram-en ikusten ditut egunero sortzen dituzten lanen argazkiak. Kanean saltzen hasi dira oraingoz... gerora nork daki?

Beste gauza askoren artean Samanek erakutsi dit lortu nahi duzun hori borrokatzeak merezi duela, nahiz eta azkenean ez eskuratu, ahalegintze hutsak zoriontsu egin gaitzakeela.

Zorionak Saman!

ZALDIAK BIDELAGUN

Zaldiekin erlazionatzeko beste modu bat erakusten du Edurne Barriolak, beraiekiko errespetuan eta elkarrekiko konfiantza landuz. Zaldizketa proiektuarekin hainbat aukera eskaintzen ditu horretarako.

Imanol García Landa

Orain urtebete inguru jarri zuen martxan Edurne Barriola tolosarrak Zaldizketa proiektua. Etorkizun hurbilean Amezketa duen lursailean izango bada ere, egun ikastaroak Abaltzisketako Garmendi Txiki baserrian ematen ditu. Zaldia eta hizketa hitzak hartuta osatutako izena da Zaldizketa, eta baita Abaltzisketa eta Amezketa izenen bukaerarekin ere jolasten duena.

Barriolak hamasei urte daramatza zaldiekin lanean. Zaldia hezten aritzen da eta izen bat egin du

alor horretan. Gaur egun ere zaldia hezten ditu, eta zaldia dagoen lekura ere joaten da, baina gutxieneko batzuk eskatuz. Lan hori ere egiten du Garmendi Txikin, eta horrez gain ikastaroak ematen ditu. «Zaldiekiko errespetu handiarekin egiten dugu», esaten du Barriolak. «Aurrena egiten dudana da azaldu zer den zaldi batengana gerturatzea, nola hitz egiten diguten gorputzarekin. Izaki bizidun bat da, ez da bizikleta bat, gainean ibiltzeko».

Askotan jendeak pentsatzen du zaldia ostikalaria direla, eta kontuz ibili behar dela ukitzerako orduan, bestela hozka egingo dutelako. Uste horien aurrean Barriolak ikastaroetara joaten direnei azaltzen die zaldia denbora guztian komunikatzen ari direla, eta zer seinale bidaltzen dituzten. «Jakín dezakegu umore onez dagoen edo haserre dagoen, edota norbait gerturatzea nahi duen edo ez».

Ez dira, beraz, zaldiz ibiltzea ikasteko emanaldi soilak izaten, zaldia gehiago ezagutzen eta beraiekin harreman bat sortzen erakusten baitu Barriolak. Gainean jarri aurretik, harremana sortzea da helburua, eta horretarako zaldia orraztea bide egokia izaten da. «Hori egite hutsak ere asko erlaxatzen ditu, bai zaldia eta baita ikastaroa egitera etortzen diren haurrak edo helduak ere», zehaztu du Barriolak. Behin zaldi gainera igotzerakoan, aulkirik gabe





Eduarne Barriola, Garmendi Txiki baserrian dagoen zaldi batekin. **I.G.L.**

egiten dute, «zaldiaren berotasun hori nozitzeko, bere giharrak, bere mugimendua... Ariketa batzuk egiten dituzte konfiantza hartzeko, eta gero pixkanaka ekitazio ariketak egiten joaten dira, baina beti ere zaldiarekiko errespetuz».

Konfiantza lantzen

Ikastaroetara joaten diren gehienei estresa joaten zaiela dio Barriolak: «Haurrak eskoletatik etortzen dira eta helduak lanetik, eta lasaitu egiten dira, oraina bizitzen dute. Buruan mila gauza izaten ditugu, eta zaldia orrazten edo bere gainean zaudenean, hona etortzen zarenean, erlaxatu egiten zara. Emozioen aldetik lasaitu egiten zara, maitasun handia jasotzen du zaldiez inguratuta dagoenak». Horrez gain, zaldi gainean ibiltzeak fisikoki indartu egiten duela gaineratu du.

Leire Usandizagak bere alaba eramaten du ikastaroetara eta Barriolak hurrekin erlazionatzeko ahalmen berezia duela dio. Plastikoa urdin batekin planteatzen duen

ariketa nabarmendu du Usandizagak: «Zaldia plastikoa gainean jarri eta gurutzatzea da ariketa. Konfiantza ariketa bat da, zaldiei ez baitzaie plastiko gainean ibiltzea gustatzen, oso urduri jartzen direlako. Oso ariketa berezia iruditzen zait, hor ere haurraren parte hartzea dagoelako. Konfiantza eta pazientzia lantzen da; azken batean, ulertzea zaldiak beldurra duen edo ez duen».

Hipika normaletatik datozen zaldiak ez daudela hezita gaineratu du Barriolak. «Ez zaie errespetatu denbora beraien emozioetarako, eta gizakiengan konfiantza ez dutenez, gauzak egiten dituzte baina behartuta, ez konfiantza dutelako». Konfiantza lan-

«Emozioen aldetik lasaitu egiten zara, maitasun handia jasotzen du zaldiez inguratuta dagoenak»

EDURNE BARRIOLA

tzen dute plastiko urdinaren ariketa-ekin, eta «oso polita» dela dio: «Zaldiaren txipa aldatzen dugu gurekiko, eta haurrentzako ere berezia da, egiten duten lanarengatik».

Barriolak animaliek berari eman diotena azaldu du: «Pixka bat esajeratuz, zaldiek eta txakurrek salbatu naute bizitza honetan. Maitasuna eman didate eta haiei eskerrak eza-



Leire Usandizaga, Haritz Saez de Nanclares eta Edurne Barriola, azken honen bi zaldiekin. I.G.L.

gutu dut maitasuna. Haiei gabe seguruena depresio batekin egongo nintzateke txikitatik. Eskerrak animaliak gertu izan ditudala, eta nire kaka guztiak aguantatu dizkidatela. Pila bat zor diet». Zaldiak hezteko eta beraiekin erlazionatzeko moduan asko aldatu dela gaineratu du. «Eta eskerrak. Oso gaizki tratatu izan ditut. Gaur egun beste leku batean nago, eta denontzako askoz hobe. Modu asko daude harremantzeko animaliekin, pertsonekin eta naturarekin orokorrean. Azkenean norbera barrutik dagoen egoeraren ispilua da. Hori ere ikasketa polita da». Animaliak eskuzabalak direla nabarmendu du: «Eskaini egiten dira gu hobetzeko».

Zaldiak hezteaz eta beraiekin erlazionatu eta gainean ibiltzeko ikastaroez gain, zaldiekin itzuliak emateko aukera ere ematen du Barriolak, eta horiek egun batzuetako ibilaldiak ere bihurtu daitezke. Horretarako modu ezberdinak ditu pentsatuta: «Izan

daiteke ogitartekoak-eta janez, edota hoteletan lo eginez, eta mendian mahai eta platerekin janez». Horrez gain urtebetetzeak ospatzeko beste modu bat eskaintzen du, zaldiez inguratuta, beti ere animaliekiko errespetuan oinarrituta. Aurrera begira, Zaldizketa proiektua Amezketan kokatzen duenean, hipoterapiako saioak antolatzeko asmoa du Barriolak, gurpildun aulkian daudenentzat eta autismoa dutenentzat, adibidez.

Zirkulu xamanikoa zaldiekin

Zaldizketa proiektuaren bitartez zirkulu xamanikoak eta zaldiekin meditazio saioak ere eskaintzen dira. Haritz Saez de Nanclares Reiki maisu amezketarrak eta Amadeus teknika egiten duen Leire Usandizaga tolosarrak bideratzen dituzte. Energiarekin egiten dute lana. «Guk energia ematen dugu eskuak jarrita. Unibertsoaren energia kanalizatzen dugu. Bion arte-

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZA. Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da. Interesatuak deitu 647 446 363 telefono zenbakira.

Zure iragarki laburra argitaratzeko **943 65 56 95, ataria@ataria.eus** edo ATARIA (San Esteban, 20. Tolosa).

an egiten dugu lana», diote. Konturatu dira Saez de Nancloresen energia fisikoagoa dela eta Usandizagarena airezkoagoa. «Bion artean oso ondo uzartzen gara. Kontsultara jendea etortzen denean, aurrena energiak orekatzen ditugu. Energiak oreka galtzen du emozioengatik, hau da, beldurra, haserrea, bakardadea... Gero intuizioaren bidez gatazkaren oinarriak begiratzen ditugu».

Xaman baten bitartez, Ipar Amerikako indiarrek «unibertsoarekin konektatzeko» duten bide bat landu dute, zirkulu xamanikoak deritzona. «Suaren baitan bilduz lau ateak irekitzen dira, ekialdea, mendebaldea, iparra eta hegoa, eta modu horretara konektatzen gara beste bibrazio batzuetan bizi den jendearekin», azaldu dute. Mendian egitea gustatzen zaie, «mendiaren energiarekin batera, guk energia horrekin kargatu eta aldi berean unibertsoarekin konektatzeko». Barriolak proposatu zien saio horiek zaldiekin egiteko, eta batzuk egin izan dituzte. «Zirkulu xamanikoetan zaldiek beraien mugimenduekin parte hartzen dute. Zaldia mugitu egiten da eta parte hartzen ari den pertsonarengana zuzenean joaten da», azaldu dute. «Horren bitartez erakusten du zeinakin egin lan. Gu baino gehiago sentitzen dute. Gurutzako ere esperientzia berria da, gu ere ikasten ari gara zaldiekin nola lan egin. Zaldien ekarpena beraien energia da, bizitzeko beste modu bat, konturatzeko azkenean denok bat garela».

Zaldien hotela

Edurne Barriolak gaur egun ikastaroak ematen dituen lekua Abaltzisketako Garmendi Txiki baserria da. Zaldien hotela da, Joxe Zubeldiak kudeatzen duena. Garai batean esne behiak zituzten eta jarduera hori utzi eta zaldia edukitzeko leku bihurtu zuten. «Jabeek zaldia hipiketan izan ohi dituzte, baina ukui-luetan izaten dituzte, zelai gutxi izaten dituztelako zaldia ateratzeko», esan du Barriolak. «Oporretan-edo joaten direnean, ez badute norbait zaldia ateratzera joango zaiena, nahiago dute horrelako toki batera ekartzea. Garmendi Txikin ondo zainduko dituzte, belazean askatuko dituzte, eta samaldan egongo dira».

Beste bezero mota bat ere badago, zaldien hotela erabiltzen duena. Kasu honetan, zaldien zahar etxe moduko bat bihurtzen da baserria. «Zaldia zahartu egitean, eta dagoeneko ezin denean gainean ibili, jabe batzuk Garmendi Txikira ekartzen dituzte», esan du Barriolak. «Nolabait erretiro on bat eman nahi diote eta bere bizitzaren azken partea gustura pasatu dezatela».

ATARIAN jarrita Goierrri eta Urola Kostako Hitza egunkartetan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.

Barazki enpanadillak



**AINZANE
ARTOLA**



Gaurkoan barazki enpanadillak prestatuko ditugu. Barazkiak sartzeaz gain, labean egingo ditugunez *osasuntsuagoak* bihurtuko ditugu.

Lehenik barazkiekin hasi beharko gara lanean; barazkiak garbitu eta zatitu beharko ditugu: tipula, porruak, piper berdea, kuitxo erdia, azenarioa eta tomatea.

Barazki guztiak zartagin batean oliba oliotan jarriko ditugu, su baxuan, goxo-goxo izango ditugu, barazki guztiak bigundu arte. Zertxobait gazituko ditugu; euren saltsa ateraz utziko ditugu sutan. Ordu laurden-hogei minutu pasata, barazki guztiak bigundu zaizkigunean, Ibarako pipermin pixka bat botako diegu,

puntu pikante edo min hori gehitzeko. Segidan, barazkiak erreserbatuko ditugu, beranduago olatan sartzeko.

Ondoren, lanean gauden mahaian, olak banan-banan zabalduko ditugu, prest utziz barazkiekin betetzeko. Ez diegu barazki gehiegi sartuko, gero ondo itxi ahal izateko. Labean eginez gero, ez du horrenbeste axola, izan ere, zailagoa da irekitzea. Baina oliotan frijituz gero, askoz ohikoagoa da oleak irekitzea. Orduan, komeni izaten da ondo-ondo itxita uztea, aldeaz aurretik. Behin olea erdia bete dugula, erditik tolestuko dugu, enpanadilla itxura hori eman ahal izateko. Alboetan sardexka bat erabilita ixten lagunduko dugu, zapalduko dugu, bi aldeak, bata bestearekin ondo pegatuta utziz.

Labea piztuko dugu, 180 gradutan utziko dugu berotzen. Bitartean, labeko erretilu batean joango gara enpanadillak banan-banan kokatzeko; bata bestearengandik zertxobait urrunduko ditugu, ez dira gehiegi puztuko baina gutxieneko tartea mantenduko dugu, elkarrekin itxatxita ez gelditzeko. Jarraian, gaintik arrautzarekin margotuko ditugu. Horretarako, arrautza irabiatu eta sukaldatzeko pintzel bat izanez gero, bikaina litzateke, horrekin margotuko genituzke.


Azkenik, arrautzaren gainean, sesamo haziak botako ditugu. 20-30 minututan eginda egongo dira gure enpanadillak. Soja saltsarekin mundialak gelditzen dira.

OSAGAIAK

- Tipula (erdia).
- Porrua (2).
- Piper berdea (1).
- Kuitxo (erdia).
- Azenarioa (2).
- Tomatea (1).
- Olea pakete bat (12).
- Arrautza (1).
- Ibarako pipermina.
- Gatza.
- Olio.
- Sesamo haziak.

Enpresa bat sortu nahi?

Ikasturte berria, asmo berriak.
Bada iraila proiektu berriak hasteko baliatzen duenik.
Enpresa-ekimen bat sortzekotan bazara,
Tolosaldea Garatzenen lagunduko dizugu.



Doako orientazio pertsonalizatua ematen dugu, ekintzaileak laguntzeko. Hasteko, negozio ideiarene analisi globala egiten dugu, eta horretarako esparru asko aztertzen dira: merkatua, bideragarritasuna, arriskuak, aukerak, eman beharreko urratsak, finantziarioa...

Bideragarritasun azterketa da lehen urratsa. Bideragarria ote da ideia? Zenbat diru eta denbora kostako da enpresa martxan jartzea? Ondorio horietatik abiatuta, Enpresa Plana garatzen laguntzen zaio ekintzaile bakoitzari.

Egitura juridikoa erabaki eta legezko izapideak aurrera eramateko laguntza ere eskaintzen da: izan autonomo, sozietate mugatu, ondasun erkidego...

Eta, ba ote da enpresa martxan jartzeko diru-laguntzarik? Langabezia subsidioa jasotzeko aukera al da? Finantziarioa lortzen laguntzen ere dugu, entitate ezberdinekin ditugun hitzarmenei esker.

Akademiak, psikologia kontsultak, arte tailerrak, arrotzeria enpresak, ostatuak, fisioterapia zentroak, aplikazio digitalak, aholkularitza... orotariko proiektuak jarri dira martxan Tolosaldea Garatzenen laguntzarekin. QR kodearen bidez ikus ditzakezue azken urtean martxan jarritako batzuk.

Azken urtean martxan jarritako hainbat proiektu.



Harremanetarako:

Ekintzailetza Saila

Jon Zubeldia Zurutuza

zubeldia@tolosaldea.eus | 943 654 501.

«Eskola nazionala ez zegoen ondo, barrutik aldatu behar genuen eta irakasle euskaldunon beharra zuen»

BITTOR MADINA
IRAKASLE OHIA

Agurtzane Belaunzaran

Eskola publikoak euskalduntzen eta metodologia modernoa aplikatzen aritua, D ereduaren aldeko borrokan. Egoera politikoa pil-pilean zegoen garai haietan, batzuentzako oraindik

frankismoaren kiratsa zuen eskola hura irauli eta gaur egun ezagutzen dugun Euskal Eskola Publikoaren oinarrian lehen harriak jarri zituen.

Inurri lana izan da berea. Atzean beti, isilpean nahiago gainera. ATARIARI bere etxeko ateak ireki diz-



kio eta bere ibilbideari egindako errepasoarekin, bere burua ere harrituta utzi du: «Zenbat gauza egin nituen nik», aipatu du askotan. Irakaslea, eragilea, euskaltzalea, irakurle amorratua, kolaboratzailea izan da eta da Bittor Madina (Oñati, 1944).

Berrobiko ikasleei mundua euskaraz uler zitekeela erakutsi zien eta grisa zen irakaskuntza sistemari kolorea jarri. Mundua ezkerreko ideiekin ulertzen zuen, baita hezkuntza ere, pedagogia aurrerakoi, inklusi-boa, euskalduna eta doakoaren alde aritu zen sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik. Berrobi izan du bizileku irakaskuntzak hara bideratu zuenetik, sustraiak ordea Oñatin ditu. Ikasle ohiak lagun, baita hauen haurrak ere, baso gizonekin patxadazko hizketaldiak egin ondoren, lagun kuttunekin literatur gomendioak elkartrukutzen ditu. Edonoren larruan

jarri eta hauei entzunaz, hizketaldi goxoak edukitze-ko dohaina duen plazagizon isila da Berrobiko maisu ohia. Egunerokoan, irakurtzea du plazer handi eta erreka bazterrean txorien kantuak entzunaz herrian paseatzea. Seneca idazleak deskribatu zuen paradisu-
suan bezalaxe.

1978an Berrobira iritsi zen Bittor gazte hura nola gogoratzen duzu?

Ilusioz eta gogoz etorri nintzen Berrobira. Ahal zena egiteko prest! Aurretik Oñatin lau urte lanean aritua nintzen eta Gasteizen urtebete, orduko erdarazko eskola nazionaletan. 33 urte nituen artean eta aurretik ikastoletako hainbat adiskiderekin batera irakasle heziketa aberasten eta indartzen aritu ginen. Bartze-lonako Rosa Sensat eskolan ikastaroa egin genuen, pedagogia aurrerakoa eta ideologia moderno-
a zuen eta niretzako irakaspen handia izan zen han jaso nuena. Jantzi egin nintzen irakasle moduan. Franko hil gabe zen artean eta politika pil-pilean ze-
goen, irakasle asko bildu ginen han, hezkuntza siste-
ma aldatzeko gogoz ginen denak.

Ez zen ordea egin zenuen kurtso bakarra izan, ezta?

Ez noski! Eskola nazionaletan lanean nenbilen bitar-tean ideia berritzaileekin nire mentalitatea zabaltzen joan zen. Tartean, lagun irakasle asko nituen eta pe-dagogia eta metodologia berriak ezagutzeko gosez ginen, aipatu bezala asko ginen eskola nazionalak barrutik aldatu nahi genituenak. Celestin Freineten pedagogia guretzako berritzailea izan zen, eskola modernoaren eta laikoaren bultzatzailea izan zen. Bere, *Pedagogia popular baterako parabolak* liburua sakratua zen guretzako, eskola txiki batean aritua zen eta proposatzen zuen pedagogia ordura arte es-kola estataletan egin zenaren kontrakoa zen: umeen barruko desirak lantzen zituen, naturan, aire librean aktibitateak egiten zituen, irakaslea eta ikaslearen arteko komunikazioa lantzen zen. Paolo Freireren pedagogiatik ere edan genuen..

70. hamarkadaz ari gara, Ikastolen zabalkundea eman zen garaiaz.

Eskola nazionaletako irakasle euskaldunak metodo-

Euskal Eskola Publikoaren trantsizioa ezagutu du Bittor Madinak. **PEDRAM YAZDANI**

Bere etxeko liburutegian, ikasle ohi eta lagunekin elkartruke literarioak egiten dituen txokoa. **P.Y.**



logia aurrerakoiak ezagutzen eta ikasten hasi ginerako, Ikastoletan aplikatzen ziren metodologia hauek. Oso jende ona sartu zen Ikastoletan lanean eta Ikastolek ipini zituzten hezkuntza modernoan euskararen lehen zimenduak.

Eskola nazionalak euskalduntzea izan zen zuen ametsa, lana, borroka, errealitatea gero.

Garai hartan, «'Eskola nazionalak' maisua al haiz, ikastola bertan edukita?», galdetzen ziguten. Eta nik erantzun: «Ez al dituk euskaradunak hor ikasten ari diren asko eta ikasi behar dituzten erdaldunak?». Tira-bira handiko garaiak izan ziren, hezkuntzaren hedapena ikusteko geneukan moduagatik. Baina bukatu dira kontu haiek. Franko hil eta gero eskola publikoan oso jende ona sartu zen eta orain ikusi besterik ez dago hasi genuen lan hark balio izan zuela. D ereduan ikastoletan eta eskola pribatuetan baino ikasle gehiago omen dago. Gure eskola publikoa euskalduna da, doakoa, ideologia euskaldunekoa eta laikoa.

Militantzia urteak izan al ziren?

Militantzia hitza bera ez dut oso gustuko. Beharrezko eta premiazko

«Jomuga,
A eredua
progresiboki
ezabatzea zen, D
eredua indartzeko
eta aukera
bakar izateko
etorkizunean»

lan baten aurrean geunden, gabezia materiala eta didaktikoa agerikoa zen eta beharra bezalakorik ez dago antolatu eta arazoari irtenbidea jartzeko. Zen-

bat bilera! Zenbat batzar! Eskolaz kanpo ordu asko sartu genituen baita uztailleko oporretan ere. Eskola nazionalak irakasle eta ikasleentzako material didaktikoa sortu genuen. Aise liburuak izan ziren horren emaitza, eskola guztietara zabaltu genituen. Zorionez, urteen poderioz D eredua ezartzean, Aisek bere lana bukatu zuen.

Euskara erakargarri egitea zenuten helburua.



Euskara ez zekiten ikasleek euskara ikasteko pausok ziren; abestiak, ipuinak, jokoak, olerkiak, bertsoak... bildu genituen *Aise* izeneko liburuetan. Ikasleek euskara ikasteko eta irakasleek erakusteko modu erakargarrian. Euskara eta euskaraz jolas-giroa zabaltzea nahi genuen. Material didaktiko honen helburua gaztelera soilik zekiten ikasleak ziren eta gero eskola bera zentro moduan euskalduna eta modernoa izatea eta ez *ghetto* bat, hori oso garbi geneukan. Jomuga, A eredia progresiboki ezabatzea zen, D eredia indartzeko eta aukera bakar izateko etorkizuneari. Euskal Herriko neska-mutil guztiek, errealitate ezberdinetakoak izanik ere, denak batera euskaraz ikas zezaten. Azken batean, etorkizuneko Euskal Herriar dibertso euskaldunak gizarte aberatsagoa bil-

katuko zutelako eta amankomunean euskara izango genuelako denok.

Euskaldunak ez ziren irakasleak ere izango ziren ba?

Bai noski, gehienak! Hauek ere euskaraz alfabetatu beharra zeunden. Batzuk borondate osoz egin zuten, beste batzuk behartuta, baina irakasleriak euskalduna behar zuten. Hauek euskaldundu bitartean *idoneoak* izeneko figurak sartu ziren eskoletan. Irakasle tituluak ez, baina euskara erakusten zuten jendea.

Hezkuntza sistema publikoa modernizatzeaz eta euskalduntzeaz gain, aktibista lanak ere egin zenuen. 80. hamarkadako hemerrotekari gainbegiratu bat eman besterik ez dago. Kontzientziazio lana ezinbestekoa al zen?

Xabier Arruti adiskideak eta biok arazoari buruzko artikulua batzuk idatziz genituen, *Eginen*, *La Vozen*, *Argian*... publikatu ziren. Prentsan gure tokia nahi genuen, Eskola Publikoak ez zuen oihartzunik komunikabideetan, Ikastolek egiten zutena ageritzen, Kilometroetako festei buruzko informazioa... baina gurea aipatu ere

ez. Ezkerreko politikarien aldetik ere babes gutxi genuen. Ezker abertzalearen babes ofiziala eta publikoa jasotzea kosta zitzaigun. Kontzientziazio lana egin nahi izan genuen artikulua hauek publikatzean, beharrezkoa zen gure lana gizarteari erakustea.

Berrobi mapan kokatu behar izan zenuen eta gabezia asko zituen eskola baten gidaritza tokatu zitzazun.

Citroen CV2 batean etorri nintzen, 1978an, Berrobi herritxoa non zegoen jakin gabe, Tolosa bakarrik ezagutzen nuen. Irailaren 29a zen, ondo gogoan dut Oñatiko festak ziren eta gabezien artean latzena, irakaslerik gabeko eskolara iritsi nintzela da. Ordura arte eskolan eduki zuten Leongo andereñoa ez zegoen. Ikasleak ia hilabete zeramaten eskolarik gabe, kalean zenbiltzan denbora-pasa eta eskola itxita.

Gurasoen babesa jaso al zenuen?

Bilerak egiten hasi nintzen beraiekin, egoera azaldu eta euskaraz zekien irakasleria presentziaren garrantzia azpimarratzen nien astero egiten genituen bileretan. Berrobiko eskolan gainera alde batetik euskaraz arrastorik ez zeukaten ikasleak eta etxean eta kalean euskaraz eta gaztelania eskolan soilik egiten zuten ikasleak nituen. Bi hizkuntz errealitate oso ezberdinak. Alde nuen ere, guraso elebakar horiek umeak euskalduntzea nahi zutela. Pazientzia

«Besteen pentsamenduetatik aurkikuntza asko egin dut, burua ireki didate, gogoetara bultzatu»

«Kontzientziazio lana egin nahi izan genuen artikulua hauek publikatzean, beharrezkoa zen gure lana gizarteari erakustea»

eskatzen nien, irakasle euskaldun gehiago lortu artekoa. Martutenen egiten zen irakasleen hautaketa eta inor ez zuten Berrobira bidaltzen. Ione Imaz irakaslea laguna nuen, batzarretan ezagututa eta Berrobira etorri nahi zuen galdetu eta baiezkoa eman zidan, bere adiskide Sebas

Herrero ere etorri zen, honek euskaraz ez zekien arren. Egutegiak urriaren 23a zuen Berrobiko eskolako ateak ikasleei eta euskarari ireki genizkienean. Deredurako bidea egiten ari ginen.

Eta Bittor Madina oñatiarra, ile luzea eta pasta betaurrekoduna Berrobin irakasle. Garai hartako Berrobin, zure estetika berritzaileak, irakasle talde harekin batera hezkuntza eredia iraultzeari ekin zion: bertsolaritza, ipuinak, sexualitatea, antzerkia, kantuak eta irakurketa euskaraz...

Berrobiko eskola txikiko zuzendari gisa, lantalde oso onarekin, hezkuntza eta euskara bera erakargarriago egiten saiatu ginen. Bertsolaritza oso gustukoa dut eta ikasleekin bertsoak lantzen genituen, bertso zaharrak ikasi, kantuak euskaraz, euskal kulturaren baloreak eman.

Sexualitate klaseetan adibidez, katalanetik itzultitako komiki-koaderno bat erabili genuen. Gurasoei erakutsi nien lehenengo, beldurtxoak baitzituzten. Liburua erakutsi eta komiki liburua zela ikustean akabo beldurrak. Aitortu behar dut zenbait herritan, zenbait gurasok errezeloz ikusten zutela gai batzuen lanketa eta denborarekin beharrezkoak zirela ikusi da, gaiak naturalizatu egin dira.

Eskola Txikien gabeziak gehiegi azpimarratzen ote ziren orduan?

Orokorrean eskola publikoarekin

gertatu zen hori hasieran eta zer esanik ez eskola txikia bazen, gabeziak egon bazeunden arren. Euskara hezkuntzan ezarri behar zen garaian, guraso batzuk galdetzen zioten bere buruari edota guri: «Baina euskaraz zer ikasiko dute ba?». Galdera horrek ezkututzen zuen beldurra desagertu genuen, mundua euskaraz ulertzeko eta ikasteko instrumentuak eta baliabideak sortzean. Berrobiko gurasoen kasuan hasieran bazuten beldurra neska-mutilak Tolosako eskoletara joatean ikasketa maila onarekin iritsiko ote ziren edo ez. Ikastetxe handietan ikasi zutenen pare egongo ote ziren zen kezka. Praktikak erakutsi zuen maila ona zutela eta gu eskola txikietan gauzak ondo egiten ari ginela. Unibertsitatara iritsi zen gure

lehen ikaslea Ramon Olasagasti izan zen, Berrobira irisi nintzenean zazpi-zortzi urteko mutil kozkorra zen artean.

Eta balore positiboak ere asko eskola txikietan, ezta?

Eskola txikietan maila ezberdinak batera egoten ziren, beharko espazio eta irakasle espezialistak ere gutxi genituen eta. Orain zenbait tokitan adin ezberdinetako ikasleak borondatez nahasten dira, pedagogikoki ona delako. Bizitza bera ziklikoa da. Lehen batzuk gaizki ikusten zutena orain oso ona delako iritzia dute edo dugu. Denok goaz ikasten poliki-poliki. Gurasoekin eta familiekin oso harreman gertukoa da landa eremutik gertu bizi gara txangoak bertatik



bertara egiteko. Gaur egun alde guztietatik abantailak besterik ez dauzkate.

Balore horien artean ere, Eskola Txikiak indartu nahi zituzten irakasleen lana, ez al da hala?

Elkarlana handia izan zen Eskola Txikietako irakasleen artean. Gogoan dut urtebetez, astean behin Berrobiko Urkola tabernan elkartzen ginela bazkaltzeko, eskualdeko Eskola Txikietako dozena bat irakasle: kezkak konpartitzen, materiala, proiektuak, arazoak, lan egiteko moduak... kalitatezko hezkuntza bat eskaintzeko gogoz.

Eskola Txikiekin herriak bizirik.

Zalantzarik gabe. Eskola txikiak itxi diren herri txikiak ikusi besterik ez dago. Eskolak herriaren nukleo sozial eta kultural garrantzitsuak dira. 1988an egin genuen lehenengoz Eskola Txikietako festa Bidanin. Gizarteari ozen esan nahi genion gu ere bertan geundela eta beharrak ere bagenituela. Bestalde, eskola txikietako haurren arteko erlazioa ere lantzea dakar eta eskolartekoa ere bai. Adin batetik aurrera, herriko eskolako kabi goxotik atera eta Tolosa, Alegia edo Villabonako eskoletan elkartzeko berriro.

Berrobiko eskolan 26 urte irakasle izanda, zenbat esperientzia gozo eta gazi pilatu ote dituzu?

Esperientzia asko izan dira, gogoeta asko sorrarazi dizkidate urte hauetan bizitakoek. Denek erakutsi didate zerbait, ongi egindakoe eta oker egindakoe. Baina ez ditut hutsak konkretatuko. Dakidana da, eurrei esker ere neu aldatu naizela. Azken urte hauetan, mesedea eskaini didate eta pozago bizi izan naiz. Une guzti-guztiak bihotzeko disko bigunean gordeak ditut eta oroitzapen guzti horiek behin ere agortzen ez diren opari magikoak dira.

Irakasle lanak utzi eta ekintzaile lanari ekin zenion berriro, euskaraz sortuz eta harilkatuz letrak. Barruan duzun sortzaile eta gogoeta zaleak ezin atsedenik hartu?

Erretiro hitzaren esanahia edo pisua nekeza zait, ez dut gustukoa. 2004an irakasle izateari utzi eta *Tolosaldeko Hitza*n kolaborazioak egiteko eskatu

«Ariketa ederra izan zen niretzako letra gutxian mami asko eta gogoetara zeramaten istorioak landu eta sortzea»

zidaten, ariketa ederra izan zen niretzako letra gutxian mami asko eta gogoetara zeramaten istorioak landu eta sortzea. Oñatiko *Kontzejupetik* herri aldizkarian ere nire ideiak eta hausnarketak idazten ditut. Berrobin berriz, *Berrobiberri* urtekariaren sortzaileetako bat eta kolaboratzailea naiz. Badira ia 22 urte lagun talde bati, ikasle ohiak gehienak, herri aldizkari bat egiteko proposamena egin niola, Altzoko eredua hartuta. Herriko is-






torioak, testigantzak, gertaerak, pasarteak bildu eta herriari euskaraz irakurtzeko tartea ematen diogu.

Egutegiko poesiak, atsotitzak, esaerak edota esaldiak mimoz aukeratuak direla ba al dakite herritarrek? Gogoetara daramaten hitzak dira, mundua aldatzeko letra tantak ote?

Literaturako liburuetan jasotako perlak dira azken urteetako egutegietako poesiak eta kontakizuntxoak. Literatura asko irakurtzen dut eta gustuko ditudan poesiak, esaldiak apuntatzen ditut. Maitasun handiz eta kontu handiz aukeratzen ditut lanak. Gogoetara eramaten dute egutegian dauden esaldiek, baina ez nuke esango mundua aldatzen dutenik, bizi-



Tolstoiern klasiakoetako bat euskara zuen. Irakurzaletasuna bultzatu zuen herriko eskolan. **P.Y.**

tza ulertarazi eta goxatu baizik. Irakurtzeak goxamena eta aberastasuna sortzen dit, elikatzearen pareko da niretzako. Besteen pentsamenduetatik aurkikuntza asko egin ditut, burua ireki didate, gogoetara bultzatu. Liburuak lagun onak ditut.

Euskarari ere egin zenion zure ekarpena literaturan.

Leon Tolstoiern *Alegiak* liburua euskaratzeko aukera eman zidan Baroja argitaletxeak 1985an. Idazle errusiarra gustuko nuen eta ipuin motzak ere erakargarri zaizkit, letra gutxitan irakaspen asko baitute. Gustu handiz egin nuen lana eta eskolan ikasleei irakurtzen nizkien ipuinak.

Zure ikasleek irakurzaletasuna bultzatu zenielea esaten dizute orain. Ramon Olasagasti kazetariak halaxe aitortu zuen egunkari honetan...

Pozgarria da oso hori ikasle ohiengatik entzutea. Nik pasioz egiten dudana transmititzeko gai izan naiz batzuei eta hori eskertzea eskertzeko da. Balore aberatsa da irakurzaletasuna. Senecak hala zioen: «Eskergabea da, eskerra isiltasunera mugatzen duena». Eta alderantziz nik, asko eskertzen diet hori adieraztea.

Zer litzateke Bittor Madina euskararik gabe?

Bittor euskararik gabe? Ba... Madina litzateke edo Medina, arabiarra baita! [Barrez]. Jatorriz nire abize-na ekialdetik omen dator: pentsa zein kultura eta literatura aberatsa hangoa!




UNAI MENDIZABAL
'MENDI'
 HARITUZEKO KIDEA

Uda

Doinua Betroiarena

Eguzkiak berekin
 dakarren freskura
 azalean barrena
 dator barrura.
 Maletak egin eta
 goazen mundura
 edo asko mugitu
 gabe ingurura
 barruko tristura
 baretzen dun hura
 atsedeen leku da.
 Beraz mugak muga
 ahal degun eran goza
 dezagun uda.





Ibaikadak

IZATE HUTSAREN BIOLENTZIA

Azken egunetako erailketa eta indarkeria sistemakoak nakar tarte honetara ber-
 rriz. Maritxu, mari-mutil, atsogizon, emagizon, atzelari, mari-motrailu, marikoi,
 trabesti, lesbiana, trabelo hau guztia gara, eta gaur ozenago esan eta erakusteko
 gai gara batzuk. Ikusi da irain hauek ez direla muxu truk eta badutela kostu bat,
 BIZIA. Azken astean Samuel galdu dugu baina bidean askok egin dute bere bu-
 ruaz beste edo ez da probarik egon biolentzia LGTBfobia zela salatzeke. Has
 gaitzen irain hauen gaineko erantzukizuna hartzen; Samuel eta beste asko ez
 dituzte sexu bereko pertsonekin oheratzeagatik akabatu, egotzi zaien genero
 batetik aldendu eta identitate propio bat eraikitzeagatik. Heteroaraua ez da ba-
 karra eta identitate guztiak dira baliozkoak. Heteroaraua denon artean eraikitzen
 dugu eta hau denon artean eraldatu behar dugu, denon erantzukizuna da.



**ARITZ
PEÑAGARIKANO
IRAZUSTA**
AEK-KO EUSKARA
IRAKASLEA

ARITZIA

Ezezagun ezagunak

Sarritan galdetzen diot neure buruari, goi-zero katuei jana ematen diena edo garaje-an makilak egiten aritzen den gizona ikusten dudanean: «Zer izen ote du? *Hemen-go* al da? Euskaraz ba ote daki?».

Erantzuna, auskalo biribil batekin batera, sorbaldak altxatzea izan ohi da, nire axolagabekeriaren lekuko gupidagabea. Gure egunerokotasunaren parte diren arren, nik bederen, agurtzeko bekainkolpe bat baino ez diet eskaini herriko ezezagun ezagunei; nahiz eta betidanik hor egon, ahots eta izenik jakin gabe. Egia esan, badira herrikideak baino samurrago tratatu ditudan estatuak.

Horren zergatia? Argi dut borondatez eginiko hautuaren ondorio dela, hau da, ezezaguna ezezagun mantentzeko kontzientziazko ahaleginaren emaitza. Jokaera horren atzean zer ezkuta litekeen pentsatzen hasita, zalantza pizten zait, nik haiek ezagutu nahi ez izanaren ala haiek ni ezagutzea ekiditearen artean.

Eta, bien bitartean, uda-sasoi betean egonik, hasi gara uztail-abuztura begirako planak prestatzen, bazter miresgarrien bila. Nik ere ipini diot

Aurtengo udan, Munichen Otto von Bismarck edo Kopenhageko Sirenatxoari argazkia atera ordez, Pablo Gorosabel eta Nikolas Ormaetxea ‘Orixe’rengana gerturatuko naiz

udarako erronka neure buruari. Tourreko etapa gorabeheratsuari begira, Xabier Usabiaga eta Fermin Aramendi entzuten nituen bitartean, otu zitzaidan bizikleta hartu eta Tolosaldeko 28 herriak bizikletaz bisitatzea. *Tolosaldeko Itzulia*, betikoa eta berria uztartuta, izenez hain ezagunak eta izanez arrotzak zaizkidan bideetan barna.

Aurtengo udan, Munichen Otto von Bismarck edo Kopenhageko Sirenatxoari argazkia atera ordez, Pablo Gorosabel eta Nikolas Ormaetxea *Orixe*rengana gerturatuko naiz. Izan ere, ustez ezaguna zaiguna ere zenbateraino ezagutzen dugu?



**NEKANE
ARTOLAZABAL
ROYO
HERRITARRA**

Ereduak

Gazte-gaztetatik izan dut ni baino helduagoa den jendea behatzeko

joera. Nerabezaroan hasi nintzen ohitura horrekin, eta begiz jotzen nituen ni baino zaharxeagoak ziren pertsonak. Haiengan islatua atzeman nahi nuen etorkizun hurbileko neure buruaren irudia. Zer ikusi, hura ikasi, kalean, baina batez ere etxean. Hala jaso nituen bizitza ulertzeko modua, kirolerako zaletasuna, literaturarako grina... Den dena zitzaidan baliagarri etorkizunean izan nahi nuen emakume heldua eraikitzeke, gaur egun naizen modukoa izateko.

tsak izateko, eskuzabaltasuna eta elkartasuna ez direla urteekin itzaltzen, eta dotoreak direla ilearen zuritasuna, aurpegiko zimurrak eta zahartzaroak oparitzen duen eskarmentua.

Hausnartzen jarrita, konturatu naiz ni neu ere gazte-agoentzako ispilu izan nintekeela. Ama naizenez, seme-alabek izan dute non begiratu bizitza ulertu eta bizitzeko moduan, lantzen dituzten zaletasunetan, zenbait erabaki garrantzitsu eta ez hain garrantzitsutan... Gustukoa dutena kontzienteki hartuko zuten, ezbairik gabe, eta horren onargarriak iruditzen ez zaizkien beste zera batzuk inkontzienteki egingo zituzten bere. «Nolako zura, halako ezpala», dio esaera zaharrak, eta ez zaio arrazoirik falta. Irakasle ere ba-

Urteek aurrera egin dute, baina nik ‘plagiatzeko’ ohitura hori ez dut galdu; are gehiago, zorroztu egin dut behatzeko gaitasuna [...], eta azkenaldi honetan 60 urte ingurukoengan jarria dut arreta.

Urteek aurrera egin dute, baina nik *plagiatzeko* ohitura hori ez dut galdu; are gehiago, zorroztu egin dut behatzeko gaitasuna —badakizu, adinak ematen duen jakinduria edo trebezia—, eta azkenaldi honetan 60 urte ingurukoengan jarria dut arreta. Esan beharra daukat, zorionez, gustuko eredu asko ditudala gertu-gertu, maisu-maistra apartak inondik ere: badut egunerokotasunean bizipoza etengabe bilatzen dakienik, etorkizunari ilusio eta gogoz begiratzen dionik, ikasteko grinaz jarraitzen duenik, errealitatea irizpide kritikoarekin aztertu eta gizarte justu eta hobe baten alde borrokan dabilenik... Horiengan ikusi dut adina ez dela arazo edo traba ilusio eta ame-

naizen aldetik, pentsatzen dut nire eskoletatik pasatako ikasle askorentzat eredu izango nintzela: batzuentzat ona, beste batzuentzat erdipurdikoa, eta gainera koentzat txarra —zer egin behar ez den ere ikasiko zuen batek baino gehiagok nire kontura—. Erne ibiliz gero, denetarik ikas liteke.

Eredu kate honetan ez da inor libratzen. Guztiok izan gara eta izango gara beste norbaiten eredu, batzuetan egokiak, desegokiak beste batzuetan. Gazteak jo puntuan ditugun honetan, lupa jarria daukagu zenbaiten portaera arduragabeen. Imitatuz ikasten dugula argi badugu, ispilu pitzatuetan begiratzen dugula onartzen hasi beharko genuke.




IONE GOROSTARZU
POETA

Ikasi

Bidean ikasi egiten dugu
lau hankan ikasten dugu, oinez, bizikletan eta sokasaltoan
futbolean eta partxisean
giharren izenak ikasten ditugu, eta hezurrenak
herrialdeak non dauden eta zer gertatu zen Erroman
handi ala txiki, zuri ala beltz, ar al eme sailkatzen
zikindu gabe jaten
molestatu gabe hitz egiten
barkatu eta mesedez eta milesker eta ez horregatik esaten ikasten dugu

eta orain badakigu *zer moduz* galdetzen sei hizkuntzatan
baina nola sentitzen garen azaltzen, ez dakigu
negarrari eusten ikasi dugu, eta negar egiten ahaztu zaigu
munduak ze prezio duen ikasi dugu
eta gauzek zenbat balio duten ahaztu
denbora neurtzen ikastea
denbora hartzeari utzi diogu
erantzunak ikasitakoan, galdetzeari
eta jokatzeko ikasitakoan, jolasteari

norbait izaten ikasi dugu
eta norbait izateko ikasi dugu
baina agian
nor garen ahaztu zaigu
bidean.



AGENDA

OSTIRALA UZTAILAK 16

ALEGIA

EMANALDIAK

12:15. Sutarri dantza taldearen emanaldia, eskolako jolastokian.

19:00. Haurrentzako Bertso-Jasa, Mikel Artola eta Maialen Akizu bertsolariekin, eskolako jolastokian.

AMASA-VILLABONA

KONTZERTUA

BERTAN BEHERA. 19:00. Idoia Asurmendiren *Ilun eta abar*. Erreboteko plazan, baina euria eginez gero Gurea antzokian.

ANOETA

KONTZERTUAK

19:00. *Ibilian ibilian* dinamika ibiltariaren barruan, Onkixin eta Basagain taldeen kontzertuak.

IRURA

MUSIKA EMANALDIA

18:00. Peppermint Quartet taldearen emanaldia. Enarak tabernako terrazan, ethno-jazz jorratzen duen taldea.

TOLOSA

BISITA GIDATUAK

10:00. Tolosako Alde Zaharra.

11:30. Tolosako 3 tenpluak, Andre Mariako ganga barne.

16:00. Andre Maria parrokoiko ganga.

17:30. Tolosako Alde Zaharra. Erreserba egiteko Tolosaldea Tour Turismo bulegoan, 943 69 74 13 telefono zenbakian edo tour@tolosaldea.eus helbide elektronikoan. Bisiten kostu arrunta hiru eurokoa da, eta murriztua, 1,5 euro.

KULTURA PLAZARA

19:00. Zetak taldearen kontzertua, zezen plazan. Sarrerak



www.kulturaplazara.eus atarian salgai.

LARUNBATA UZTAILAK 17

ALKIZA

BISITA GIDATUA

10:00. Intsektu txikiak ezagutzeko bisita gidatua antolatu du Fagus Alkizak. Aurrez eman beharko da izena 688 60 44 66 telefonoan edo kultura@alkiza.eus helbidean. Aranzadi Zientzia Elkarteko Entomologia saileko kidea da Iñaki Mezquitak eskainiko du. Parte hartu nahi duenak egunean bertan bost euro ordaindu beharko ditu, alkizarrentzako eta hamabi urtez azpikoentzako doan izango da bisita gidatua.

AMASA-VILLABONA

OZTOPO ZIRKUITOA

Zortzi urtetik aurrera. 10:30-13:30 eta 16:30-19:30 artean egongo da zabalik. Erreboteko plazan eskainiko dute, baina euria eginez ikastolan.

TXAPELKETA

10:15. Halterofiliako Espainiako Ligako hirugarren jardunaldia jokatuko da. 10:15ean hasiko da emakumezkoen lehia eta gizonezkoena, 11:45ean, Olaederra kiroldegian.

IGOERA

16:00. Sandra baserrira igoera. Izen-ematea: www.herrikrosa.eus edo 615 711 056 (10 euro). Txapela sub 18, sub 23 eta elite. Banakako irteera minutu bateko aldearekin. Irrintzi elkarteak antolatuta. Villabonako herrigunetik Sandra baserrira, lau kilometroko igoera. Hamasei urtetik gorakoentzat.

AMEZKETA

BISITA GIDATUA

18:00. *Argi ezkutuaren bila* izenpean, herritarra den Agurtzane Garmendiak eskainiko du. Bost geldiduneko bisita gidatua da, eta ordu eta erdiko iraupenean egiteko modukoa. San Bartolome elizaren atzeko aparkalekua da bisitarien topagune. Aldez aurretik erreserba egitea ezinbestekoa izango da. 657 370 156 telefono zenbakira deituz edo WhatsApp

AGENDA

mezua bidalita. Ohiko sarrera hiru eurokoa izango da, eta murriztua den kasuan, 1,5 euro ordaindu beharko da. Lau urtetik beherako haurrentzat doan izango da. Eta gehienez ere hogeitak pertsonako taldeak osatuko dituzte.

TOLOSA

BISITA GIDATUA

10:00. Tolosako Azoka.

11:30. Tolosako 3 tenpluak, Andre Mariako ganga barne.

16:00. Andre Maria parrokoiko ganga.

17:30. Tolosako Alde Zaharra. Erreserba egiteko Tolosaldea Tour Turismo bulegoan, 943 69 74 13 telefono zenbakian edo tour@tolosaldea.eus helbide elektronikoan. Bisiten kostu arrunta hiru eurokoa da, eta murriztua, 1,5 euro.

TOLOSALDEA

IBILIAN IBILIAN ETXERAKO BIDEAN

Ibilian ibilian Tolosaldea urdinduz Alegian amaituko da ekimen mugikorra. Bizikletaz eta oinez Aiztondo, Ikaztegieta, Berastegi eta Tolosaldeko herrietatik igaroko da

zutabe ezberdinetatik. Asteasu (10:00), Zizurkil (10:15), Villabona (10:30), Irura (11:00), Anoeta (11:00), Tolosa (11:30) eta Alegia (12:30). Berastegi (10:30), Ibarra (11:00), Tolosa (11:30) eta Alegia (12:30). Lizartza (11:00), Tolosa (11:30) eta Alegia (12:30). Ikaztegieta (11:30) eta Alegia (12:30). Oinez joateko asmoa dutenek, 11:00etan Triangulotik abiatuko dira.

IGANDEA UZTAILAK 18

ALTZO

BISITA GIDATUA

11:00-13:30. Altzoko Handia eza-gutzeko bisita gidatua. Uztaileko lau igandetan izango dira bisita gidatuak eta nahitaezkoa izango da izena ematea: 943 65 24 13, udala@altzo.eus, 943 65 22 62 edo zatozaltzora@gmail.com-ean. Sei urtetik gorakoek sarrera ordaindu beharko dute; hiru euroko kostua izango du.

AMASA-VILLABONA

KALE ANTZERKIA

19:00. Barsanti teatroaren *Kale gorrian* kale ikuskizuna. Pako Revueltasen zuzendaritzapean; Juanjo Otero eta Aritza Rodríguez aktoreekin. Erreboteko plaza. Etxegabetu nahi duten aitona-amona bikotea dira protagonista,

AMEZKETA

BISITA GIDATUA

12:00. *Argi ezkutuaren bila* izenpean, herritarra den Agurtzane Garmendiak eskainiko du. Bost geldioneko bisita gidatua da, eta ordu eta erdiko iraupenean egiteko modukoa. San Bartolome elizaren atzeko aparkalekua da bisitarien topagune. Aldez aurretik erreserba egitea ezinbestekoa izango da. 657 370 156 telefono zenbakira deituz edo WhatsApp mezua bidalita. Ohiko sarrera hiru eurokoa izango da, eta murriztua den kasuan, 1,5 euro ordaindu beharko da. Lau urtetik beherako haurrentzat doan izango da. Eta gehienez ere 20 pertsonako taldeak osatuko dituzte.



ALTZO

BISITA GIDATUA

11:00-13:30. Altzoko Handia eza-gutzeko bisita gidatua. Uztaileko lau igandetan izango dira bisita gidatuak eta nahitaezkoa izango da izena ematea: 943 65 24 13, udala@altzo.eus, 943 65 22 62 edo zatozaltzora@gmail.com hel-bidean. Sei urtetik gorakoek sar-rera ordaindu beharko dute; hiru euroko kostua du.

BALIARRAIN

ERROMERIA

19:00. Saioa Lizarralde eta Maddalen Arzallusekin *Erromeria*. Eserita izango da eta aurretik izena eman behar da: 669 71 27 49 (Amets).

ASTELEHENA

UZTAILAK 19

AMASA-VILLABONA

MANTENTZE GIMNASIA

09:30-10:30. Uztaileko astelehen eta asteazkenetan, izen-ematerik

gabe, herritar guztientzat irekia, ikastolako patioan.

TOLOSA

ODOLA EMATEA


16:30. Gipuzkoako Odol Emaileak elkarteak bideratutako odol ematea. Aurretik txanda hartzea beharrezkoa da, telefonoz, odol emaleen elkartearen: 900 303 404. Kultur etxeko Topagunean, lehen solairuan.



OHARRA. Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda da hona-koa. Jakina denez COVID-19ak unean uneko aldaketak sortu ditzake.



ERAKUSKETAK



XILOGRAFIA IKASTAROKO

IKASLEEN LANAK

Jabetze Eskolako xilografia ikastaroko ikasleen lanak ikugai egongo dira Emakumeen Etxeko erakusleihoetan. **Tolosa, Emakumeen Etxeko erakusleihoa.**



HERRIKO ARTISTAK

Herriko artisten lanen erakusketa.

Hernialde, udaletxeko kultur aretoa.



MANDALA

Edurne Sudupe Zabaloren 'Mandala' erakusketa. **Tolosa, 3 taberna.**



Ana Arsuaga Aranbarri tolosarra da Verde Prato. **E. MAIZ**

«Gurpil baten moduan proiektua hazi egin da, eta ilusioz hartu dut»

ANA ARSUAGA ARANBARRI
MUSIKARIA ETA ARTISTA PLASTIKOA

Eneritz Maiz Etxarri

Verde Prato izena jarri dio Ana Arsuaga Aranbarri (Tolosa, 1994) artistak bere bakarkako proiektuari. Serpiente eta Mazmorra taldeetan aritutako musika-riak proposamen bat tarteko hasi du bakarkako bi-dea. *Kondaira eder hura* diskoa kaleratu du.

Noiztik datorkizu musikarako zaletasuna?

Beti izan naiz zalea, eta beti gustatu izan zait. Nire izebek piano akademia bat dute Tolosan, eta txikita-tik lehengusu guztiak bertara joaten ginen. Horrela hasi nintzen solfeoa eta pianoa ikasten. Aldiz, abestu nire kontura egin izan dut. Bilbora Arte Ederrak ikas-

tera joan nintzen, eta lagunak-eta egiten hasi nintzen. Lagun horiek taldeak zituzten, eta egun batean, horietako batek talde bat sortzeko proposamena egin zidan, eta Serpiente sortu genuen. Horrela hasi nintzen musika munduan.

Familiak umetatik sartu zaitu, beraz, musikaren munduan.

Pixka bat bai. Nolabait, formazio pixka bat, baina ez pentsa gehiegi eman didatenik ere. Gehiago izan da jolas moduan ikastea, lagunekin batera. Azkenean, pianoaren formakuntzak edo formakuntza arautu

horrek zerikusi gutxi dauka egiten dudanarekin edo kontzertu bat ematearekin edo talde bat sortzearekin. Beste modu batean izan da sorkuntza prozesu hori.

Bilbo aldean taldea sortuta, baina nolatan erabakitzen duzu bakarkako bidearekin hastea?

Geroago, baina ia aldi berean. Taldea utzi baino lehen sortu zen Verde Prato proiektua. Justu, Serpienterekin hasi nintzenean Mazmorra izeneko talde batekin ere ibili nintzen, bi taldeetan batera arituz. Momentu horretan, bat-batean, Jon Mantzisidor artista eta musikariak esan zidan kontzertu esperimental batzuk ari zirela egiten, eta ea abesti batzuk bakarka abestu nahi nituen. Serpiente taldetik ezagutzen ninduen, eta froga moduan eskaini zidan aukera.

Animatu egin zinen.

Ekitaldi esperimentala zenez probatzera animatu nintzen. Dibertigarria izan zitekeela pentsatu nuen, baina gau horretan bakarrik egiteko zen. Pare bat abesti egin nituen, eta gau hartan abestu. Lagun batzuk ikusi ninduten, eta gero, hortik aurrera, kontzertu gehiago eskaini zizkidaten bakarka. Eta ze ondo pentsatu nuen nire artean, bat-batean, frogatxoak funtzionatu egin du edo norbaiti gustatu egin zaio, eta horrek ilusioa egin zidan. Horrela hasi nintzen pixkanaka abestiak sortzen, kontzertu horietarako.

Gurpil baten moduan proiektua hazi egin da, eta ilusioz hartu dut.

Noiz izan zen bakarkako lehen kontzertu hori?

Orain dela bi urte eta erdi edo izan zen gutxi gorabehera.

Ez zenuen zalantzarik izan oholtza gainera igotzeko?

Beldurra ematen zidan, eta egia esan nahiko gaizki pasa nuen egiterako orduan. Baina aldi berean barenen jakin-mina nolakoa izango zen jakiteko. Bakarrik gauza bat egiten duzunean zuk kontrolatzen duzu dena eta zuk nahi duzun bezala egin dezakezu, guztiz. Eta horrek egiteko gogoia sortzen zidan.

Ausarta izan zinen.

Ausarta edo pixka bat eroa. [Barreak].

Verde Prato izena jarri diozu. Zer dela eta edo nondik dator?

Berez lehen egunerako izena jarri behar nion proiektuari edo frogatxo horri, eta zein izen jarri pentsatzen hasi nintzen. Zaila da izena jartzea proiektu bati, eta pentsatu eta pentsatu ari nintzela gogoratu nintzen Verde Pratoz. Tolosako antzerki tailerreko zuzendaria da nire ama, eta ni txikia nintzenean obra bat egin zuen *Verde Prato* izeneko, Basile italiarren ipuin batean oinarrituta. Hortaz oroitu nintzen, izan ere, beti kartela etxean eduki izan dugu, eta kar-



telaz gogoratu nintzen. Asko gustatu izan zait beti. Izen iradokitzailea iruditzen zait. Jartzeagatik jarri nion; kapritxo zko erabakia izan zen, egia esan.

Oroitzapenen kutxatik tiraka, beraz.

Bai, eta ipuinen kutsuarekin baita ere.

'Kondaira eder hura' da diskoa. Zazpi

abesti eta istorio bat harilkatuta. Horrela egitea pentsatuta zenuen?

Lehen egunerako pare bat abesti egin behar nitue-
nez, idazten hasi nintzen eta konturatu nintzen den-
bora guztian gai berdina zela. Eta behin gainerako
kontzertuetarako gehiago konposatzen hasi nintze-
nean, agian hitzak konposatzerako orduan posible
nuela gai horretatik tira egin pentsatu nuen eta fikzio
batera eraman. Orduan, pentsatu nuen opera edo
antzerki baten moduan, non, bakoitzak bere bertsioa
ematen duen, hau da, istorio baten bertsioa edo zati-
txo bat kontatzen dut. Horregatik izan zen. Aitzakia
moduan, baina aldi berean lagundu egin dit istorio
bat sortzeko eta letrak sortzeko.

Proiektu hau baino lehen ere sortzen zenituen abestiak?

Berez bakarkakorako ez, baina taldeekin bai. Azke-
nean, taldeetan ere hori izan da nire papera, abestea.
Letrak-eta nik idazten nituen, baina neure buruan ez
zegoen bakarrik zerbait egitearen ideia. Esan egin zi-
daten eta horrela hasi nintzen momentuan.

Eta harrapatu zaitu?

Bai-bai. Niretzat gozamen bat da nik dena erabaki
ahal izatea. Bere alde txarra ere badu bakarrik aritze-
ak. Besteen talentuekin ezin duzu jolastu, eta ezin
duzu ezer sortu; zure bizioekin ari zara. Eta aldi bere-
an, zuk erabakitzen duzu dena, nondik joan, emaitza
ere zerorrek kontrolatu ahal duzu hobeto...

Oholtza gainean ere zu bakarrik. Eroso sentitzen zara?

Gustatzen zait. Ideia bera ere gusta-
tzen zait. Neska gazte bat agertoki ba-
tean. Gustatzen zait indarra eta bote-
rea hortik sortzea. Musikari edo talde
batek izan dezakeen indarra momentu
horretan, non bera dagoen zerbait
esaten edo, eta hori gustatzen zait

«Niretzat
gozamen bat da
nik dena erabaki
ahal izatea»

neska gazte bat izatea. Kontzep-
tualki gustatzen zait. Aparte, ohol-
tzara igota badago tentsio eta bel-
dur puntu bat, eta, bestalde, hori
ere gustatzen zait. Hori gainditzea
eta tentsio horretan hor egotea.

Nola definituko zenuke egiten du-

zun musika?

Ez da erraza, baina jarri egin behar nuela-eta, euskal
musika herrikoi experimental. Badu hortik zer edo
zer. Musika herrikoitik eta musika euskaldunetik asko
edaten dut, baina aldi berean, musika garaikide ez-
berdinetatik ere bai. Esperimentazioa hor sartuta da-
goela esango nuke.

Ez da ohikoena zuk egiten duzuna, ezta?

Ez dakit. Non kokatu ondo jakiteko ez dut neure bu-
ruarekiko distantzia hori. Ez nuke jakingo ikuspegi
orokor batean non kokatu. Musika tradizionalarekin
musika experimental asko egin dela esango nuke,
ezagunena Laboatik hasita. Asko egin da. Haizea
edo Izukaitz beste garai bateko taldeak dira, baina
baita Mursego, Amorante, Ibon RG,... jende asko da-
bil gauzak egiten tradizioa oinarri hartuta. Bakoitzak
bere terrenoan jotzen du eta bakoitzak bere ekarpe-
na egiten du.

Herrian, Bonberenean aurkeztu duzu zure diskoa. Nolako esperientzia izan zen?

Oso ona izan zen. Jendea oso adi moduan sentitu
nuen. Atmosfera bat sortu zen, eta hor funtzionatu
zuela pentsatzen dut. Bazegoen kontzentrazio giro
bat, eta oso pozik. Oso gustura jo nuen, eta asko dis-
frutatu nuen. Eta gainera, Bonberenean oso-oso
ondo tratatu ninduten.

Epe laburrean, non ikusi daiteke Verde Prato?

Hilaren 24an Cartagenan (Murtzia) dut kontzertua
La Mar de Musicas jaialdian, eta abuztuaren 1ean, Ma-
drilen, La Casa Encendidan daukat beste kontzertua.

Oraintxe bertan Euskal Herritik kan-
po ditut kontzertuak.

Zure lanaren gainean zer jaso duzu ingurukoengandik?

Familia eta lagunengandik gauza
onak [Barreak]. Beste taldeekin
agian ez zait pasa, eta asko gusta-

«Neure buruan
ez zegoen
bakarrik zerbait
egitearen ideia»



Agertoki gaineen bakarrik azaltzen da Ana Arsuaga. **ATARIA**

tzen zaidan zerbait da, jende oso ezberdinaren eta musika mundutik kanpo dagoenaren iritzi on bat jasotzea. Hori gustatzen zait. Seinale ona dela iruditzen zait, edo nik behintzat horrela hartzen dut. Esaterako, nire amona asko gustatzen zaiola esanez etortzea; beste taldeekin hori ez dit inoiz esan. Jende oso ezberdinak entzun dezakeela iruditzen zait, eta hori gustatzen zait.

**Tolosarrentzat hain ezaguna den 'Galtzaundi' abes-
tiarekin ere bertsio bat egin duzu.**

Bai. Niretzat Tolosako eta inauterietako abestiak-eta influentzia dira, eta aurretik komentatu dudan moduan musika herrikoia dira. Hortik asko edan dut. Familian abestu dut, herrian abestu dut beti nire lagunekin, zerbait berezia da niretzat. Inguru afektibo bat daukat abesti horiekin, eta bertsio bat egiterakoan horrekin nahi nuen lan egin. Ildo horrekin, eta beste leku batera eraman edo nire mundura eraman.

«Ideia bera ere gustatzen zait. Neska gazte bat eszenatoki batean. Gustatzen zait indarra eta boterea hortik sortzea»

Musikari izateaz gain, artista ere bazara. Diskoko azala eta kontrazaleko irudiak zerorrek egin dituzu.

Bai, baina kasu honetan ere proposatu egin zidaten. Hasiera batean bazuen nartzizismo puntu bat ez zitzaidana gustatzen, baina aldi berean, dena nik egiten badut: musika konposatu, eszenatokira atera, paseak, ahotsa,... *Do it yourself*, hau da, autosufizientzia ideia pila bat dago. *Topera* dena egiten dut, eta jada neronek borobiltzen dut ideia.

Orain kontzertuak lotu nahian zabiltza buru-belarri?

Bai. Aurten oso zaila izan da, baina pixkanaka ari dira kontzertuak ateratzen. Horretan ari naiz, eta ea zenbat ateratzen diren. Nik ez dut hain zaila eduki. Bakarrik nago agertokian, musika nahiko lasaia da,... eta hala ere, asko nabaritu dut, beraz, ez dut imajinatu ere egin nahi horrela, hau da, eserita-eta funtzionatzen ez duten taldeek zenbat nabaritu duten. Urte zaila izan da bai.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Giro eguzkitsua bueltan izango dugu. Goizean oraindik hodei baxu batzuk agertuko dira, baina orduak aurrera egin ahala eguzkiak xurgatuko ditu eta arratsalde eguzkitsua geratuko da. Azken orduetan berriz ere hodei batzuk agertuko dira, baina batere garrantzirik gabe. Haizeak ipar, ipar-ekialdetik joko du eta tenperatura igo egingo da, 23-25 gradutan joaz goia.

LARUNBATA

Giro eguzkitsua eta sana. Goizean behe-hodei gutxi batzuk agertuko dira, baina eguerdirako zerua erabat urdin geratuko da eta arratsaldean giro eder batez gozatze-ko aukera izango dugu. Haizeak aldakor joko du goizean, arratsaldean aldiz ipar-ekialdetik eta tenperatura koska bat igo eta 24-26 gradutan errendituko da.

IGANDEA

Giro dotoreak jarraipena izango du. Berriz ere goizean hodei hon-
darren bat agertuko da, baina eguzkiak segituan xurgatuko ditu eta eguraldi eguzkitsua izango dugu egun osoz. Haizeak aldakor xamar joko du, berriz ere arratsaldean ipar-ekialdekoa nagusituko delarik. Tenperaturak beste koska-
txo bat gora egin eta 25-27 gradutan joko du goia.

ASTELEHENA

Giro eguzkitsuarekin jarraituko dugu. Goizeko hodei hondarrak salbu, egun osoan zehar eguraldi eguzkitsua nagusituko da. Haizeak ipar-ekialdetik joko du eta balio altuenak 26-28 gradu ingurukoak.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€
45€
51€

Atarikideek

12€
33€
38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

UZTAILAK 16, OSTIRALA
AMASA-VILLABONA

Egunekoa. JJuana Maria Sanchez.
Kale Berria, 34.
943 69 11 30.

UZTAILAK 17, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korrore kalea, 20. 943 67 60 13.

UZTAILAK 18, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. Edurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7.
943 67 06 48.

UZTAILAK 19, ASTELEHENA
TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korrore kalea, 20.
943 67 60 13.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.**
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.

IRAGARRI HEMEN ETA ESKUALDEAK BUELTATUKO DIZU

JARRI ZURE IRAGARKIA ATARIAN
publi@ataria.eus / 661 678 818

* Atarikideentzat eskaintza bereziak

* Itzulpena eta diseinua doan



harpidedun izateak badu saria saridunak

1 BKB Karpin Abentura FAUNAREN BABES ZENTRUA

Bi lagunentzako bina sarrera

Karrantza
infokarpin@gmail.com
626 622 245

- Aitziber Lizartza Etxebeste (Ibarra)
- Edurne Zabala Artano (Tolosa)

Aurrez deitu parkera.



2 LEARTIBAI ONDAREAREN KALITATEZKO KONTSERBA ETA PRODUKTU SORTA

Laneko Koop. Elkartea Okamikako industrialdea, 2
5 A. 48289 Gizaburuaga.94 684 20 26
bbkazoka.eus/eus/kolekzioak/laneko

- Antxon Iglesias Iturrioz (Ibarra)

Ataria jarriko da harremanetan.



3 TXITXIRIO euskaraz eginak

Kamixeta bana bi lagunentzat

- Lierni Arizeta Andiarrena (Bidania-Goiatz)
- Miren Atxaga Arnedo (Tolosa)

www.txitxirio.eus
656 788 351

Ataria jarriko da harremanetan.



MERKEALDIA

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

www.multioplicas.com   

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen